

ERRIKOSHEME ALAYARI

Egietako Donostiarra
 jakintsu, prestu, leyala,
 iskribalari oso argiya
 maisu bat zirudiyela,
 pare gabeko jostalariya
 errikošeme bezela
 urre biyotza naigabetu zait
 jakiñikan ill zerala

 ¡¡Jaun zerukoak zure anima
 bereganatu dezala!!

Jose ARTOLA

* * *

SERAFIN BAROJA-RI

Arratsak illuntzen duben bezela egun argiya, illundu ditu eriotzak
 zure buru, biyotza ta begiyak.

Len illati sutsua ziñan, ¿eta orain?..... jela: otza.

ANTONINO EZPONDA

* * *

¡ZER NAIGABEA!

Biyotzian pena ta
 begiyan malkoak
 aundiyak dira gure
 naigabe gaurkoak;
 ez gaude astutzeko
 zure lan naikoak
 sarituko sinduben
 bada Jaungoikoak.

ROSARIO ARTOLA